

ESP. KODEA. 2021DEEU0006	
ESPEDIENTEA	
TITULARRA	ORMAZABAL,INSAUSTI,LIERNI
TOKIA	

ALKATEAREN EBAZPENA

GAIA.- GOIERRIKO HEDABIDEAK S.L.ri (GOIERRIKO HITZA egunkaria eta GOIBERRI astekaria) 2021 urteko dirulaguntza ematea.

AURREKARIAK

1.- Udalbatza Osoak 2005eko urriaren 27an egindako ohiko bileran, gehiengo absolutuarekin "Goierriko udalak eta Goierriko Hitzaren arteko hitzarmena Goierriko Hitzarekin lankidetzat antolatu eta finantzatzeko" proposamena onartzea erabaki zuen.

2.- Onartutako hitzarmenaren arabera, Goierriko Udalek biztanleko 2 €-kin lagunduko zuten GOIERRIHO HITZAren jarduera.

3.- GOIBERRI, GOIERRIKO HEDABIDEAK, S.L. enpresak 2012. urtetik argitaratzen duen astekaria da eta 2014an Udalbatzak biztanleko 1 €-ko dirulaguntza nominatibo bat onartu zuen GOIBERRI astekariarentzat, urte horretatik aurrera urtero onartu zena 2019ra arte.

4.- 2019an bi dirulaguntzak, hau da, GOIERRIKO HITZAri eta GOIBERRIri ematen zitzaiena batu egin ziren, eta ondorioz, bi argitalpen horiek argitaratzen dituen GOIERRIKO HEDABIDEAK S.L.rentzat biztanleko 3 €-ko dirulaguntza aurreikusitako urteko aurrekontuan.

5.- Beasaingo Udalak 2021erako Goierriko Hedabideak S.L.-ren aldeko dirulaguntza aurreikusia du 0230.471.335.40.01 kontusailean, azaroaren 17ko, 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorren 22.2 a) artikuluan xedatutakoaren babespean.

6.- Betebehar fiskalak eta Gizarte Segurantzaren aurrekoak egunean dituela egiaztatuta geratu da.

Hau guztia ikusirik, eta apirilaren 2ko, 7/1985 Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1 s) artikuluan xedatutako ahalmenaz baliatuz, Alkatea naizen honek, egun indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskumenak erabiliz

EBAZTEN DUT

Lehenik.- 2021eko ekitaldirako, GOIERRIKO HEDABIDEAK S.L.ren alde aurrekontuan izendun gisa aurreikusitako dirulaguntza (41.640,00 €) onartzea.

Dirulaguntza hau bateragarria da helburu bererako beste Administrazio, edo erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako bestelako dirulaguntzekin, guztira jasotako fondoek diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez duten bitartean.

Bigarren.- Diru-laguntzen 1. zatiaren ordainketa %50 (20.820,00) agintzea.

Hirugarren.- Dirulaguntzaren ordainketa aurreratua zuritzeko ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira 2022ko apirilaren 30eko epemugarekin:

a) **Jarduketa memoria**, dirulaguntza ematean jarritako baldintzak bete izana frogatuko duena. Zer jarduera burutu den eta zer emaitza izan den adierazi behar dira.

b) Jardueran izandako **gastu eta inbertsioak sailkatzeko zerrenda**. Hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, egite data eta, hala badagokio, ordainketa data adierazi behar dira.

Dirulaguntza ematen duen organoak egiaztatuko ditu egoki deritzan eta dirulaguntza behar bezala erabili dela zentzuz agerian uzten duten frogagiriak. Horretarako, onuradunari eskatu diezaioke berak hautatutako gastu frogagiriak bidaltzeko.

Gastu eta inbertsioak sailkatzeko zerrenda ordezkatu ahal izango da, kontu auditoreen erregistro ofizialean hala izena emanda dagoen pertsona edo sozietate baten **txostenarekin**.

c) Diruz lagundutako jarduketa finantzatu duten **bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda** xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Laugarren.- Ebazpen honen eta bidezkoak diren helegiteen berri ematea.

Beasainen, 2021eko ekainaren 2an

Leire Artola Ugalde
Alkatea

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Goierriko Hitza dirulaguntza